

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1724

1930/2011 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinen bidez arautzen baitira 2011ko ekitaldirako lanbide garapen-maila aitortzeko ohiko deialdiko baldintzak, eskabideak, ebaluazio-prozedura eta maila-esleipena Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako profesionalentzat.

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako 11. artikulua araber, urtero lanbide garapena ebaluatzeko prozesuaren deialdia egingo da Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpen bidez. Aipatutako dekretu horien bidez, arautzen da Osakidetzan lan egiten duten pertsonal lizentziatu sanitarioaren, diplomatu sanitarioen eta lanbide heziketako profesional ez-sanitarioen eta sanitarioen lanbide-garapena. Osakidetzak arautzen du maila bakoitzaren enkoadratze-prozedura.

Ebazpen hau lanbide garapenaren sistema ezartzeko fasea amaitu ostean ematen da. Lanbide garapeneko sistema hori honako hauetan arautzen da: azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako Aldi baterako Lehen Xedapenean eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuko eranskinaren 5. atalean jasotako aldaketetan. Azken dekretu horren bidez, 2008ko martxoaren 14an egindako bileran Sanitateko Mahai Sektorialean lortutako Akordioa onartu zen.

Horregatik guztiagatik eta kontuan izanda aplika dakizkiokeen azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuko eranskinaren 5. atalean jasotako aldaketak

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da betekizunak, moduak eta eskabideetarako epeak eta ebaluazio-prozedurak eta maila-esleipena arautzea, 2011ko ekitaldiko Osakidetzako profesionalen ebaluazioaren eta lanbide garapenaren ohiko deialdian.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Osakidetzako Zerbitzu Erakundeetan zerbitzu aktiboan edo antzeko egoeran dauden lanbide talde guztietako profesional finkoek eta ez-finkoek eska dezakete prozesu honetan parte hartzea.

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako 4 eta 5 artikuluekin bat, orain aitortuta daukatenaren justu goragoko maila eskatu eta aitortu daiteke. Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionalean maila aitortu gabe dutelako, Sarrera Mailan dauden profesionalak I. Mailako aitortpena bakarrik eska dezakete.

Ebaluazio negatibo baten ondorioz, aurreko deialdian eskatutako maila lortu ez duten profesionalak «ebaluazio berri bat egitea eska dezakete deialdia egin eta bi urte igarotakoan», «behin betiko maila-esleipenaren ebazpena ematen denetik aurrera», Lanbide Garapeneko Dekretuetako 11.4 artikuluen arabera.

Aldi baterako barne-sustapenean dagoen pertsonalak izendapen finkoa dueneko kategorian bakarrik eska dezake lanbide garapena, eta kategoria horri dagokion lanbide garapenaren osagarria jasotzeko eskubidea izango du.

Eskabidea egitea borondatezkoa da. Interesatuak eskabidean honako hau egiaztatu beharko du: eskatzen diren betekizunak betetzen dituela edo eskabideak aurkezteko epean beteko dituela.

3. artikulua. – Betekizunak.

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako 5. artikulua arabera, eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuko eranskinaren 5. atalaren arabera, betekizun hauek ezartzen dira ebaluazioaren eta lanbide garapeneko mailaren aitortzenaren deialdian parte hartzeko:

1.– Aitorpena eskuratu nahi duen kategorian zerbitzu aktiboan edo antzeko egoeran egotea Osakidetzan, Osasun Zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu markoaren gaineko abenduaren 16ko 55/2003 Legean araututakoaren arabera:

a) Enplegu finkoa duten langileentzat, eskabideak aurkezteko epean.

b) Langile ez-finkoentzat, eskabideak aurkezteko epe hasieran edo epeko uneren batean.

2.– Osakidetzan plaza jabetzan duten langile finkoek edo aldi baterako berriro lanean hasi direnek, Osakidetzan lan egiten dutela egiaztatu beharko dute aitorpena lortu nahi duten kategorian. Aurkeztuko den deialdi aurreko azken hiru urteetan gutxienez urtebeteko zerbitzua izan behar du.

3.– Ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren arabera, Osakidetzan plaza jabetzan ez duen pertsonal finkoak Osakidetzan lanean diharduela egiaztatu beharko du, aitorpena lortu nahi duen kategorian, eta zerbitzu aktiboan edo antzeko egoeran dagoela, aurkeztuko den deialdiaren aurreko hiru urtetan zehar.

4.– Pertsonal ez-finkoak hiru urteko zerbitzuak egiaztatu behar ditu Osakidetzan, aitorpena eskatzen duen kategorian, eskabidea aurkezteko epea hasi aurreko azken bost urtetan.

Era berean, EPEko azken prozesuan parte hartu duela ere egiaztatu beharko du, eta eskatu duen kategoriako azterketa ere egin duela, ezinbesteko kasuan izan ezik eta betiere dagokion eskabidea egin bada. EPE horretan Kategoria deitu ez bada, justu aurreko EPEko kategoriaren deialdia hartuko da erreferentziatzat.

5.– Aitorpena eskatuko duen kategorian 5 urteko zerbitzuak izan behar ditu eginda.

Egindako zerbitzuak kalkulatzeko honako hauek hartuko dira kontuan: zerbitzu aktiboan edo plaza-erreserbarako eskubidea duten antzeko egoeran egindako denboraldiak, Osasun Sistema Nazionalean edo Europar Batasuneko kide diren Estatuetako Osasun Sistemetan antolamendu aldetik eta funtzionalki integratutako Osasun Erakundeetan egindako zerbitzuak.

a) Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren eta otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren arabera araututako profesionalentzat, honako hau hartuko da kontuan:

– Aitorpena eskatu duen kategoriako edo lanbide-talde bereko beste kategoria batzuetako, eta hala badagokio espezialitateko, lanpostu funtzionalak betetzea, baldin eta horiek betetzeko Lizentziatuaren edo Diplomatuaaren titulazio sanitarioa eskatzen bada, Osasun Zientzietan espezialisten titulu ofizialak lortzeko egindako prestakuntza-urteak izan ezik, salbu zerbitzu espezialeko egoeraren bidez eginak izan badira.

– Ikerketako Zentro Ofizialetan edo Osasun Sistema Nazionalari atxikitako erakundeetan pertsonal ikertzaile gisa egindako zerbitzuak, betiere Lizentziatu edo Diplomatuaren titulazio sanitarioa eta dagokion espezialitatea eskatzen duen kontratua badu.

– Etengabeko atentzio-zerbitzurako kontratatu gisa egindako zerbitzuak.

b) Abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren arabera araututako profesionalentzat, honako hau hartuko da kontuan:

– Aitorpena eskatu dueneko kategoriako lanpostu funtzionalak betetzea, edo bestelako kategorია batzuetakoak, baldin eta lanbide-talde berekoak edo goragokoak badira.

– 1984ko ekainaren 14ko Osasun Ministerioaren Aginduak ezarritakoaren arabera, «teknikari funtzioetako erizaintzako laguntzaile» gisa egindako zerbitzuen denbora Teknikari Espezialisten kategorian zenbatuko da lanbide garapenerako.

Aitorpena eskatzen deneko kategorian beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuei % 50eko balioa emango zaie.

6.– Eskatutako maila lortzeko behar diren egindako zerbitzu-urteak betetzea.

Kategorian egindako zerbitzuei, bertan gutxienez bost urte egin badira, Osasun Sistema Nazionalan edota Europar Batasuneko kide diren EstatuetakO Osasun Sistemetan beste lanbide-talde batzuetan egindako zerbitzuak gehitu ahal zaizkie, honako balioen arabera:

Sarbide Taldea	Taldeetan egindako zerbitzuen balioa										
	A1	A2	B1	B2	C1	C2	C3	D1	D2	D3	E1
A1	% 100	% 50	% 50	% 25	% 25	% 10		% 15	% 10		% 10
A2	% 100		% 75		% 50			% 25			% 15
B1	% 100	% 50	% 100	% 25	% 50	% 15	% 10	% 25	% 10		% 10
B2	% 100				% 75			% 50			% 25
C1	% 100							% 75			% 50
C2											
C3											
D1	% 100										% 75
D2											
D3											
E1	% 100										

Ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuko eranskinaren 5. atalean 2. puntuari ezarritakoarekin bat, «Profesional bakoitza ohiko lehen deialdian aurkeztzen denean, ezartze-aldian lortutako azken mailarako behar diren zerbitzuez gaildiko egindako zerbitzuak zenbatuko dira mailara iristeko».

4. artikulua. – Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Partaide bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du Internet bidez, Osakidetzaren www.osanet.euskadi.net web-orrian, edo Erakundeko Intraneten dagoen ereduia betez.

Aurreko paragrafoan adierazitako moduan eskabidea egiteko behar diren informatika-baliabideak jarriko ditu Osakidetzak, bere zerbitzu-erakundeen bitartez.

Eskabidea egiterakoan, profesionalak beretzat garrantzitsuak diren informazioak eman ditzake faktore edo item ezberdinetan ebaluatu ahal izateko. Horretarako, eskabidean dauden Ebaluaziorako Ekarpak Fitxak beteko ditu, eta Prestakuntza, Irakaskuntza/Ezagutza Hedatzea eta Ikerkuntza/Berrikuntzako merituen curriculum vitae aplikazio informatikoan erregistratuko.

Aurreko deialdietan Osakidetzak profesionalen curriculumeko merituen balioztatu badizkiete, alegatutako merituen berriak bakarrik erregistratu beharko dituzte profesional horiek, balioztatze behar den dokumentazio-egiaztagiriak aurkeztuz. Halaber, lehendik erregistratutako merituen dokumentazioa ere aurkez dezakete, egiaztapen-dokumentaziorik ez aurkezteagatik edota dokumentazio nahikoa ez aurkezteagatik Osakidetzak bere garaian baztertu arren.

Erregistroak baliozkotzeko egiaztagiriak jatorrizko dokumentuak izan beharko dira edo bestela, jatorrizkoaren fotokopia konpultsatuak. Fotokopian honako datuak adieraziko dira: data, izen-abizenak, NAN eta konpultsa egiten duen arduradunaren sinadura irakurgarria. Osakidetzak interesdunari eska diezaioke E.A.E.ko hizkuntza ez-ofizialetan aurkeztutako dokumentazioaren zinpeko itzulpena aurkeztea.

Ez da curriculumeko merituen bat ere zenbatuko, baldin eta erabilzaileak Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean aplikazio informatikoan sartu edo aldatu baditu.

Halaber, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago emandako dokumentu bidez amaitu gabe leudeken merituen ez dira zenbatuko.

Behin eskabidea eginda eta curriculumeko merituen erregistratuta, eskabidearen ordezkagiria Zerbitzu Erakundeko Pertsonalaren Departamentuan entregatu behar da eskabideak aurkezteko epean.

Eskatzaileek hilabeteko epea izango dute, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo eguneko 14:00etatik aurrera, eskabidea eta merituen dokumentazioa bete eta aurkezteko, artikuluko honetan ezarritakoaren arabera.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 1061/2009 Ebazpen bidez araututako Deialdian parte hartu zuten Lanbide Heziketako Profesional Ez Sanitarioek eta Sanitarioek 2012ko maiatzaren 21eko 14:00etatik ekainaren 8ko 14:00etara bitarteko epea izango dute eskabideak aurkezteko. Profesional horiei ez zitzaion IV. Maila aitortu ebaluazioan lortu ez zutelako eskatutako puntuazio-baldintzak.

Prozesuan onartua izateko, ezinbestekoa da dagokion eskabidea eta egiaztagiria behar den denboran eta moduan betetzea eta entregatzea, aurkezteko epearen barruan.

Ofizios baztertuko dira profesionalak aurkeztutako curriculum-merituen eskabideak baldin eta eskatutako Lanbide Garapenaren Mailarako B Blokean eskatzen diren gutxieneko puntuetara ailegatzen ez badira.

Zerbitzu aktiboan ez baina beste egoeraren batean daudenek Osakidetzako Erakunde Zentralaren egoitzan aurkeztu beharko dituzte agiriak (Araba kalea, 45 zk., 01006 Vitoria-Gasteiz).

5. artikulua.– Datuen zehaztasuna.

Eskabidean eta aurkezten diren agiri eta informazioetan datu faltsuak jarriz gero, zigortu egingo da eskabidea ezeztatuz; horretaz gain, legez dagozkion neurriak hartu daitezke.

Curriculumaren aplikazio informatikoan adierazitako helbidea izango da jakinerazpenetarako balioko duen bakarra, eta eskatzailearen erantzukizun eksklusiboa izango da datu horiek gaizki eman badira edo edozein aldaketaren berri Osakidetzari eman ez badio.

6. artikulua.– Egoera bereziak.

Lizentzia-egoeran dauden edo lanpostua gordetzeko eskubidea duten baimena daukaten profesionalak, egoera horiek urtebete baino gehiago irauten dutenean, honako puntuazioa emango zaie A Blokeko eta C Blokeko agintariek ebaluatutako faktore eta item puntuazio moduan: bere lanbide-taldeko/kategoriako profesionalak bere Erakundean lortutako batez besteko puntuazioa, bere antzinasun-taldearen barruan, egoera horretan dirauten bitartean. Aurreko hori ezinezkoa balitz, batez besteko hori kalkulatzeko 25 profesional edo gehiago ez dagoelako, erreferentziazat beste batez besteko hau hartuko da: Osakidetzako profesionalak euren lanbide-taldean/kategorian eta antzinasun-taldean lortutako batez bestekoa.

Zerbitzu berezietan edo sindikatu-ordezkapenetan lanaldiaren % 100ean liberatuta bi urte baino gehiago daramatzaten profesionalak Erakunde Zentraleko Batzordera atxikiko dira, eta eskatzen duten Maila lortzeko behar den gutxieneko puntuazioa emango zaie A eta C Blokeetako arduradunek ebaluatutako faktore eta itemen puntuazio moduan.

7. artikulua. – Ebaluatzeko prozedura eta irizpideak

Ebaluazioa honela garatuko da: azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako 6. artikulua (Profesionalen tipologia ebaluazioaren ondorioetarako), 7. artikulua (ebaluazioaren faktoreak) eta 8. artikulua (arabera (ebaluazio-irizpideak) egingo da ebaluazioa. Dekretu horien bidez, Osakidetzan lan egiten duten pertsonal lizentziatu sanitarioen, diplomatu sanitarioen eta lanbide heziketako profesional ez-sanitarioen eta sanitarioen lanbide-garapena arautzen da.

Ebaluazio-prozesuan parte hartuko dute: Profesionalak berak, ebaluatuak lan egiten duen Arloko, Unitate edo Zerbitzuko arduradunak, eta zerbitzu-erakundeetan horretarako osatutako Ebaluazio-Batzordeak. Orokorrean, gainbegirale, zerbitzuburu/atalburu/unitateburu kargua duten arduradunak edo goragoko kargudunak izendatuko dira ebaluatzaile.

Ebaluatu beharreko profesionalak meritu hauen gaineko informazioa eman behar du: Prestakuntza/Ezagutza hedatzea eta Ikerkuntza/Berrikuntza, eta baita faktore edo item ezberdinetan ebaluatzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkion informazioak ere, eskabidean dauden Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak betez.

Arloko, Zerbitzuko edo Unitateko arduradunari dagokio A eta C Blokeetako faktoreak eta itemak ebaluatzea, jarduerarekin, gaitasunarekin eta lanbide-eremuarekin zerikusia duten faktoreak eta itemak ebaluatzea, erakundearekiko inplikazioarekin eta konpromisoarekin zerikusia dutenak barne, ebaluatu beharreko beste alderdi batzuen gaineko informazioa ere eska dakiokela ahaztu gabe, ebaluazioaren emaitzak horretarako ezarritako aplikazioan erregistratuz eta Zerbitzu Erakunde Ebaluazio Batzordeari aurkeztuz honek aztertu eta tratatu ditzan.

Alorreko, Zerbitzuko edo unitateko arduraduna ebaluatuaren lanbide-talde berekoa ez denean, eremu profesionalari dagokion ebaluazioa arduradun hierarkikoak edo funtzionalak egingo du.

Zerbitzu Erakundean ez badago ebaluatuaren lanbide-talde bereko arduradunik, ebaluatuaren titulazio bera edo goragokoa duen arduradun hierarkikoak egingo du ebaluazioa. Ebaluazio Batzordeak ebaluatuaren titulazio eta/edo espezialitate bereko aholkulari bat izendatu dezake.

Osakidetzako Erizaintzako Eskolako profesionalak, beren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Eskolako zuzendariak ebaluatuko ditu, eta Erakunde Zentraleko Batzordeari atxikita egongo dira.

Pertsonal ez-finkoarentzako ebaluazio-prozedura egokitu ahalko da pertsonal-mota horren berezitasunengatik, batez ere ebaluatzaileak izendatzeari eta ebaluazio-batzordeei dagokienez.

B eta C Blokeetako curriculumeko merituak ebaluatzeari dagokionez, kontuan hartuko dira aurreko sei edo zazpi urtetako merituak, aldez aurretik aitortu zaien mailari dagokion egonaldi-eparearen arabera. Horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zenbatuko dira. I. maila aukeratuz gero, profesionalaren curriculum osoa hartuko da kontuan.

Zerbitzu Erakunde Ebaluazio Batzordeak prozesu osoan sortutako informazio guztia, Arloko, Zerbitzuko edo Unitateko arduradunek egindako ebaluazioak, ebaluatutako profesionalak betetako ekarpen-fitxak eta curriculumeko baremo-merituak jaso eta aztertuko ditu, eta hala badagokio, ebaluazioaren emaitzak onartuko ditu.

Atal ezberdinetan lortutako emaitzak ikusita, Ebaluazio Batzordeak uste badu profesionalari buruzko informazio gehiago behar dela, ebaluatuaren ebaluazio osagarri bat egitea eska diezaike Arloko, Zerbitzuko edo Unitateko profesionali, edo hala badagokio, beste Zerbitzu Erakunde bateko espezialitate bereko profesionali.

Ebaluazio-Batzordeak, bere jarduera amaitutakoan, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda prestatu eta onartuko du, eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira igorriko.

Beti, dagokion ebaluazioa gainditu behar da, bloke bakoitzean eta azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuetako 8. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazio lortuz, dagokion maila esleitzeko.

395/2005 Dekretuan araututako profesionali IV. Maila esleitzeko, baldintza hau ezartzen da: B Blokean eskatzen diren puntuetatik (57 puntu), gutxienez % 10 lortzea «Irakaskuntza eta ezagutza hedatzea» atalean eta/edo «Ikerkuntza-Berrikuntza eta beste meritu batzuk» izeneko atalean.

B1 taldeko (Diplomatu sanitarioak), A2 taldeko (Goi mailako teknikariak) eta B2 taldeko (erdi-mailako teknikariak) profesionali IV. Maila esleitzeko, baldintza hau jarri daiteke hurrengo Lanbide Garapeneko Deialditik aurrera: B blokean eskatzen diren puntuetatik (57 puntu) gutxienez % 5 lortzea «Irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena» atalean eta/edo «Ikerkuntza-Berrikuntza eta beste meritu batzuk» izeneko atalean.

Profesionalak ebaluatzeko ardura duten organoei azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikulua aplikatuko zaizkie (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

8. artikulua. – Mailak esleitzeko prozedura.

a) Mailak esleitzeko behin-behineko ebazpena.

Ebaluazio batzordeak, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda onartutakoan, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira bidaliko du.

Erakunde batzordeak txostena bidali ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du ebazpen baten

bidez. Horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

b) Mailak esleitzeko behin betiko ebazpena.

Jarritako errekurtsuak Zuzendaritza Nagusiak erabakiko ditu, eta lortutako mailak behin betiko esleitu dituzte ebazpen bidez. Ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da.

Maila-esleipenaren behin betiko ebazpenean Maila aitortzen zaien profesionalen zerrenda eta baztertutako profesionalena onartuko da, eta administrazio-bidea agortuko duen Ebazpen horren aurkako jarritako gora jotzeko errekurtsuak onartu edo ezetsiko dira.

9. artikulua.– Ebaluazioaren ordainketa-ondorioak.

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuan Lanbide Garapenaren Maila bakoitzeko zenbatekoak ezartzen dira Lizentziatu Sanitarioentzat, eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuan gainerako lanbide-taldeentzat.

Maila aitortzeko eskabidea egiteko hilabeteko epea duten profesionalentzat, ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo eguneko 14:00etatik aurrera, Mailari esleitutako ordainketak ebazpen hau sinatu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera egingo dira, azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen arabera.

Maila aitortzeko eskabidea egiteko 2012ko maiatzaren 21etik ekainaren 8ra arteko epea duten profesionalentzat, Mailari esleitutako ordainketak eskabidea aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hilabeteko 1ean egingo dira.

Pertsonal ez-finkoak bere lanbide taldearen lanbide garapeneko mailari dagozkion zenbatekoak kobratuko ditu, lanbide talde horretan egindako zerbitzuetan aitortutako denboraldietakoak.

Goragoko lanbide-taldeko kategoria batean lanpostu finkoa lortzen dutenek, aurretik lanbide garapeneko maila bat aitortuta badute, ordainsari-osagarri bat izango dute, garapen-maila horri dagokion zenbatekoaren balio berekoa, harik eta kategoria berrian aurrekoaren zenbatekoa gainditzen duen garapen-maila bat aitortu arte.

Aitortutako azken mailari dagokion zenbatekoa bakarrik jaso daiteke, eta aldi berean ezingo da inolaz ere jaso garapen-osagarria kategoria profesional batean baino gehiagotan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan espresuki aurreikusten ez denerako, honako legeetan jasotako arauak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta azaroaren 22ko 395/2005 Dekretua, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretua eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretua, zeinen bidez arautzen baita Osakidetzan lan egiten duten lizentziatu sanitarioen, diplomatu sanitarioen eta lanbide heziketako profesional ez-sanitarioen eta sanitarioen lanbide garapena, eta baita 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren 5. atalean jasotako aldaketak ere.

Bigarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke, hil biko epean; biak ere ebazpena EHAA-n

2012ko apirilaren 17a, asteartea

argitaratu eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena).

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

LIZENTZIATU SANITARIOEN MERITUEN BAREMOA

A BLOKEA

A blokea “Jarduera Asistentziala” eta “Lanbide-jakintza” deritzen faktoreek osatzen dute; horietako bakoitza item ezberdinen bitartez ebaluatzen diren azpifaktoreez osatzen da.

Aipatutako item horiek agintaritzak ebaluatzen ditu, profesionalak betetako eskabidean jasota dauden Ebaluaziorako Ekarpen-fitxak kontuan izanda.

1. FAKTOREA. JARDUERA ASISTENTZIALA: gehienez 100 puntu.

1.1. AZPIFAKTOREA. HELBURUAK LORTU ETA BETETZEKO ORIENTAZIOA

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
- Joera – Etekina	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 80
- Osakidetzaren batez besteko konparaketa		
- Zerbitzuaren batez besteko konparaketa		

1.2. AZPIFAKTOREA. ERAGINKORTASUNA BALIABIDEAK KUDEATZEN

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
- Antolakuntza eta plangintza	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 20
- Baliabideak erabiltzea		

2. FAKTOREA. LANBIDE JAKINTZA: gehienez 100 puntu.

2.1. AZPIFAKTOREA. JAKINTZA TEKNIKOA

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Atentzio espezializatua - Zailtasun teknikoa/polibalentzia - Autonomia tekniken erabileran - Trebetasuna eta gaitasuna - Erreferentzialtasuna - Protokoloak eta teknikak hobetzea/ berrikuntza	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 60

2012ko apirilaren 17a, asteartea

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
Lehen mailako atentzioa - Preskripzio-kalitatea - Protokoloak eta teknikak hobetzea/ berrikuntza - Erreferentzialtasuna	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 60

2.2. AZPIFAKTOREA. TRATURAKO GAITASUNA

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
- Erabiltzailearekiko harremana	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 20
- Erabiltzailearen gogobetetzea		

2.3. AZPIFAKTOREA. ZORROZTASUN PROFESIONALA

Itemak:	Ebaluazioa:	Puntuazioa
- Arauak/gidalerroak betetzea	5 gradu ebaluatzen dira	0 - 20
- Prestakuntza/eguneratze profesionala		

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merituen balorazioari begira, honakoa zehazten da:

- Ez dira meritutzat hartuko betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lana, lan horren berezko edukia eta espezifikoa. Ebaluazio-batzordeak erabakiko du jarduera horiek aintzat hartu behar diren.
- Prestakuntzako edo irakaskuntzako jardueraren erakunde antolatzailetzat hartzen da jarduera bideratu eta kudeatzen duena, zuzenean edo beste entitate batzuen bitartez eskainita ere. Betiere erakunde antolatzailetzat hartuko da parte-hartzaileak jarduera bete duela ziurtatzen duena edota jarduera horri dagozkion titulazioak edo ziurtagiriak ematen dituen.
- Nazioarte, estatu edo erkidego mailakotzat jotzen diren merituen baremazioa, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoarekin bat etorriko da edo, hala dagokionean, nazioartekotzat hartuko da jardueraren zabalkunde-eremua gutxienez lau herrialdetara hedatzen denean, eta estatu mailakotzat zabalkunde-eremua herrialde bakar batera (erkidegoa edo haren barneko lurraldea) mugatzen denean.
- Merituek, zenbaketari dagokionez, gehienezko denbora-muga dutenean, profesionalak parte hartzen duen deialdiari dagozkiola ulertuko da.

3. FAKTOREA. PRESTAKUNTZA

Atal honetan graduondoko titulazioak eta egindako etengabeko prestakuntza hartuko dira kontuan, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-planean jasota ez badaude.

Kontuan hartuko dira honako arlo hauei buruzko graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza:

- Prestakuntza, espezialitatearen edo lanpostuaren oinarrizko arloetan, zerbitzuaren barruan identifikatuta daudenak.
- Prestakuntza espezialitateari edo lanpostuari lotutako teknika osagarrietan.
- Prestakuntza kudeaketan, ikerkuntza-prestakuntzan eta irakaskuntza-tekniketan.

Honako erakunde hauek antolatutako eta ziurtatutako graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza baino ez dira kontuan hartuko:

- Unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak
- Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean)
- EOSeko erakundeak eta zentro sanitarioak, edo EBri dagozkionak
- Administrazio entitate eta erakundeak
- Profesionalen elkargoak, elkarte zientifikoak eta elkarte profesionalak
- Estatuko administrazio publiko ezberdinek hitzartutako etengabeko prestakuntzari buruzko akordioen arabera eskainitako eta egiaztatutako ikastaroak

Prestakuntzako jarduerak jasotako kredituen arabera puntuatuko dira, betiere honelakoak badira:

- Estatuko unibertsitateetako kredituak
- Europako ECTS kredituak (unibertsitateko 2,5 kredituen balioa dutenak)
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordeko kredituak

Jarduerak mota honetako krediturik ez badauka, jasotako prestakuntza-orduen arabera puntuatuko da (ez dira puntuatuko titulazioa edo dagokion egiaztatzea lortzeko eskatzen diren praktika-orduak edo erakundeetako egonaldiak).

Graduondoko titulazioa-prestakuntza:

Graduondoko prestakuntzari dagokio, honakoak kontuan hartuta: unibertsitateek, edo haiei lotutako erakundeek, emandako titulu eta diplomak, izaera espezializatu edo disziplina anitzeko prestakuntza aurreratua helburu dutenak, espezializazio akademiko, profesional edo ikerketa-arlokoari begirakoak; graduondoko masterrak, graduondoko diplomak, doktoretzako ikastaroak, etab.

Era ponderatua puntuatuko dira Lanbide Garapeneko maila ezberdinak lortu ahal izateko honako graduondoko titulu hauek:

- Unibertsitateek eskaintako master ofizialak (unibertsitateko 60 kreditu edo gehiago)
- Doktore titulua, ikertzeko nahikotasuna edo diploma ikasketa aurreratuetan

Aplikatu den ponderazioa % 100, % 75, % 50 eta % 25koa izango da aurkeztutako deialdi bakoitzean.

Egoiliarren prestakuntza	5 puntu
--------------------------	---------

Graduondoko prestakuntza

Prestakuntza presentziala unibertsitate kreditu/ordutan egiaztatua Prestakuntza ez presentziala unibertsitateko kredituetan egiaztatua	Puntuak
- Masterra ≥ 60 kred. ($\geq 600h$)	16 puntu
- Masterra 50-59 kred. (500-599h)	15 puntu
- Masterra 40-49 kred. (400-499h)	14 puntu
- Masterra 30-39 kred. (300-399h)/Diploma ≥ 30 kred. ($\geq 300h$)	13 puntu
- Graduondoko masterra/diploma 20-29 kred.(200-299h)	11 puntu
- Graduondoko masterra/diploma 10-19 kred.(100-199h)	7 puntu
- Graduondoko diploma ≥ 10 kred.($<100h$)	0,6 kred./ 0,06 orduko

Prestakuntza ez presentziala ordutan egiaztatua	Puntuak
- Masterra ≥ 600	8 puntu
- Masterra 500-599h	7,5 puntu
- Masterra 400-499h	7 puntu
- Masterra 300-399h / Graduondoko diploma $\geq 300h$	6,5 puntu
- Masterra / Graduondoko diploma 200-299h	5,5 puntu
- Masterra / Graduondoko diploma 100-199h	3,5 puntu
- Graduondoko diploma $<100h$	0,03 puntu / orduko

Etengabeko prestakuntza:

Etengabeko prestakuntzat hartuko da gaitasun profesionala mantentzeko, areagotzeko edo hobetzeko egiten diren prestakuntza-jarduerak, ikastaroak, mintegiak, tailerrak, etab., behin oinarrizko titulazioa edo dagokion espezialitatekoa lortu ondoren.

Kreditu edo ordurik adierazten ez duten jarduerak ikastegunak aintzat hartuta puntuatuko dira, baldin eta behar bezala adierazita badaude. Kreditu, ordu edo egunik aipatzen ez duten jarduerari 1 eguneko balioko puntuazioa emango zaie.

Etengabeko prestakuntza ez presentziala gehienez ere 600h/60 kreditu puntuatuko da urte osoari dagokionez. Muga honetatik kanpo daude Osakidetza prestakuntza-programetan jasota dauden ikastaroak.

Prestakuntza-jarduerak: ikastaroak, tailerrak, mintegiak, etab.

Prestakuntza presentziala unibertsitate kreditu/orдутan egiaztatua Prestakuntza ez presentziala kreditu unibertsitarioetan egiaztatua	Puntuak
- Ikastaroak >10 kreditu (>100h)	6 puntu/ikastaroko
- Ikastaroak <10 kreditu (<100h)	0,6 puntu/kredituko
- Doktoletzako ikastaroak (12 puntu gehienez doktoletzako ikastaroengatik)	0,06 puntu/orduko 0,3 puntu/eguneko
Prestakuntza ez presentziala orдутan egiaztatua	Puntuak
- Ikastaroak >100 h	2 puntu
- Ikastaroak <100 h	0,03 puntu/orduko 0,15 puntu/eguneko

Bilera zientifikoak:

Bilera zientifikotzat hartzen dira gairi lotutako profesionalen artean lanbide edo jakintza-arlo bateko ezagutza espezifikoen zabalkunde edo eztabaidara beren-beregi zuzendutako deialdi edo foroak, kongresuak, jardunaldiak, mahai-inguruak, sinposiumak, etab. Kreditu edo ordurik adierazten ez duten jarduerak ikastegunak aintzat hartuta puntuatuko dira, baldin eta behar bezala adierazita badaude. Kreditu, ordu edo egunik aipatzen ez duten jarduerari 1 eguneko balioko puntuazioa emango zaie.

Bilera zientifikoak (gehienez 1,5 puntu/bilerako)

- Kreditutan egiaztatua (GKF/unibertsitateetakoak)	0,6 puntu/kredituko
- Orдутan egiaztatua	0,05 puntu/orduko
- Egunetan egiaztatua	0,25 puntu/eguneko

4. FAKTOREA. IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN ZABALKUNDEA

Honako eremuetan egindako irakaskuntza-jarduerak baloratuko dira:

- Irakaskuntza espezialitatearen edo lanpostuaren oinarritzko arloetan, Zerbitzuaren barruan identifikatuta daudenak.
- Irakaskuntza espezialitateari edota lanpostuari lotutako teknika osagarrietan.
- Irakaskuntza kudeaketan, ikerkuntza-prestakuntzan eta irakaskuntza-tekniketan.

Erakunde hauek antolatutako eta egiaztatutako irakaskuntzako jarduerak baino ez dira kontuan hartuko:

2012ko apirilaren 17a, asteartea

- Unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak
- Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean)
- EOSeko erakundeak eta zentro sanitarioak, edo EBri dagozkion osasun-sistemak
- Administrazio entitate eta erakundeak
- Profesionalen elkargoak, elkarte zientifikoak eta elkarte profesionalak
- Estatuko administrazio publiko ezberdinek hitzartutako etengabeko prestakuntzari buruzko akordioen arabera eskainitako eta egiaztatutako ikastaroak

Komunikazio edo argitalpen bateko egiletzat jotzeko "Vancouver-eko arauak" delakoan zehaztatutakoak hartuko dira irizpidetzat.

Graduatu aurreko irakaskuntza:

Graduatu aurreko irakaskuntzat hartzen da titulazio akademiko ofiziala lortzeko ematen dena.

- Katedraduna (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura	1 puntu/urte-ikasturteko
	Diplomatura	1 puntu/urte-ikasturteko
- Irakasle titularra (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura	0,75 puntu/urte-ikasturteko
	Diplomatura	0,75 puntu/urte-ikasturteko
- Irakasle elkartua/Laguntzailea (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura	0,02 puntu / orduko (Max.1 puntu/ikasturteko)
	Diplomatura	0,02 Puntu / orduko (Max.1 puntu/ikasturteko)
- Graduatu aurreko praktiken tutore arduraduna (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura	0,5 puntu/urte-ikasturteko
	Diplomatura	0,5 puntu/urte-ikasturteko

Egoiliarren irakaskuntza

- Ikasketaburua (gehienez 7 urte)	2,25 puntu/urteko
- Zentroko Zuzendaritzak egiaztatutako espezialitateko tutorea (gehienez 10 urte)	1 puntu/urteko
- Egoiliarren irakaslea (ikasketaburuak edo espezialitateko tutoreak izendatua), BAME irakaskuntzarako zerbitzu egiaztatu zein egiaztatu gabeetan (gehienez, 10 urte)	0,05 puntu/hilabeteko

Graduondoko irakaskuntza eta etengabeko prestakuntza egiaztatua

Honakoei dagokie: graduondoko edota etengabeko prestakuntzari lotutako irakaskuntzako jarduerak; ikastaroak, mintegiak, tailerrak, saio kliniko orokorrak, etab.

- Hizlaria-Irakaslea	0,3 puntu/orduko
- Graduondoko ikastaroetako praktiketako tutore-arduraduna	0,5 puntu/ikastaroko
- Proiektuak ebaluatzea (tesinak, graduondokoak, etab.)	1 puntu/proiektuko

Bilera zientifikoak

Txostenak*

- Nazioartekoa	Lehen egilea/txostengilea	4 puntu/txosteneko
	Moderatzailea/Egile laguntzailea	2 puntu/txosteneko
- Estatukoa/eskualdekoa	Lehen egilea/txostengilea	2 puntu/txosteneko
	Moderatzailea/Egile laguntzailea	1 puntu/txosteneko

Ahozko komunikazioa, bideo-komunikazioa, poster-komunikazioa

- Nazioartekoa	Lehen egilea/txostengilea	2 puntu/komunikazioko
	Moderatzailea/Egile laguntzailea	1 puntu/komunikazioko
- Estatukoa/eskualdekoa	Lehen egilea/txostengilea	1 puntu/komunikazioko
	Moderatzailea/Egile laguntzailea	0,5 puntu/komunikazioko
- Dibulgazioko komunikazioak/parte-hartzeak osasun-arloan (hitzaldiak, aurkezpenak etab.)		0,3 puntu/komunikazioko

* Txostenek edo komunikazioek sari edo goraiipamen bat jasotzen badute, euren puntuazioa %50 areagotuko da (moderatzailea alde batera utzita).

Artikuluen argitalpena

Artikulu originalaren egilea

- Nazioarteko aldizkaria	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	10 puntu/artikuluko
	Indexatua < 10 (ISI) inpaktu faktoreaz	5 puntu/artikuluko
	Beste aldizkari batzuk	2 puntu/artikuluko
- Aldizkari nazionala	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI)	3,5 puntu/artikuluko
	Beste batzuk	1,5 puntu/artikuluko

Berraztertze artikulu eta editorialetako egilea

- Nazioarteko aldizkaria	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	5 puntu/artikuluko
	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI)	2,5 puntu/artikuluko
	Beste batzuk	1 puntu/artikuluko
- Aldizkari nazionala	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI)	1,75 puntu/artikuluko
	Beste batzuk	0,75 puntu/artikuluko

Ohar kliniko, zuzendariarentzako gutun eta beste batzuen egilea

- Nazioarteko aldizkaria	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	1,5 puntu/artikuluko
	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI)	0,75 puntu/artikuluko
	Beste batzuk	0,3 puntu/artikuluko
- Aldizkari nazionala	Indexatua inpaktu faktoreaz	0,6 puntu/artikuluko
	Beste batzuk	0,25 puntu/artikuluko

Liburuen argitalpena (tesiak, txostenak, jardunaldi eta kongresu jakinarazpenak izan ezik)

- Osakidetzak argitaratutako liburuetan egilea izatea		3 puntu/liburuko
- Liburuak (ISBN edo lege-gordailudunak)	Zuzendari/egilea/ Editorea/koeditorea	7 puntu/liburuko
- Kapituluak (ISBN edo lege-gordailudun liburuak)	Lehen egilea	2 puntu/kapituluko (Max.7 puntu/liburuko)
	Egile laguntzailea	1 puntu/kapituluko (Max.3,5 puntu/liburuko)

Irakaskuntza-jarduera eta ezagutza-zabalkundearen antolaketa eta kudeaketa

Honi dagokio irakaskuntzako eta jakintzaren hedapenerako jarduerak antolatzea; ikastaroak, biltzarrak, mahai-inguruak eta abar

2012ko apirilaren 17a, asteartea

Batzerde antolatzaileko/zientifi koko presidentea, zuzendaria, idazkaria	Nazioartekoa	Biltzarrak	5 puntu/ekitaldiko
		Doktoretzako ikastaroa	3 puntu/ekitaldiko
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma	2,5 puntu/ekitaldiko
		Bestelako ikastaroak	2 puntu/ekitaldiko
	Estatukoa-Eskualdekoa	Biltzarrak	3 puntu/ekitaldiko
		Doktoretzako ikastaroa	2 puntu/ekitaldiko
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma	1,5 puntu/ekitaldiko
		Bestelako ikastaroak	1 puntu/ekitaldiko

Batzerde antolatzaileko/zientifi koko presidenteordea	Nazioartekoa	Biltzarrak	3 puntu/ekitaldiko
		Doktoretzako ikastaroa	2 puntu/ekitaldiko
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma	1,5 puntu/ekitaldiko
		Bestelako ikastaroak	1 puntu/ekitaldiko
Batzerde antolatzaileko/zientifi koko kidea	Estatukoa-Eskualdekoa	Biltzarrak	2 puntu/ekitaldiko
		Doktoretzako ikastaroa	1,5 puntu/ekitaldiko
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma	1 puntu/ekitaldiko
		Bestelako ikastaroak	0,5 puntu/ekitaldiko

5. FAKTOREA. IKERKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA BESTE MERITU BATZUK

- Doktore titulua (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak eta Ikerkuntzako Nahikotasuna)	18 puntu/doktore tituluko
- Ikerkuntzako nahikotasuna (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak)	10 puntu/ikerkuntzako nahikotasuneko
- Doktoretza-tesiaren zuzendaritza	3 puntu/zuzendutako tesiko
- Doktoretza-tesiaren epaimahaia	0,5 puntu/urteko (Gehienez 10 urte).

Ikerkuntza-proiektuak

Ikerkuntza-proiektutzat hartuko dira barneko ikerkuntza-batzorde batek, erakunde finantzatzaileak edo deialdi publiko baten bidez emandako proiektuaren ebaluazio-agentziak ebaluatutako proiektuak (azken kasu horretan, deialdian ezarritako epean amaitutako proiektuak baino ez dira kontuan hartuko).

- Deialdi publiko batez emandako ikerkuntza-proiektuak	- 2 urtetik gorako iraupena duten proiektuak	Ikertzaile nagusia	8 puntu/proiektuko
		Ikertzaile laguntzailea	4 puntu/proiektuko
	- 2 urtetik beherako iraupena duten proiektuak	Ikertzaile nagusia	6 puntu/proiektuko
